




TXIRRITXOLA

6. ZENBAKIA 1993. EKO MARTXOA BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

**Azaroa hotz: Negua motz, Azaroa bero: Negua gero
Elur melur ez nauk beldur, etxean badiat nahiko arto eta egur**



Goikolea: XVIII. Gizaldiko testigua

Bakion guztiok ezagutzen dogun baserri honeri buruzko lehehengo aipamenak XVIII. gizaldikoak dira. Aipamen honen artean jaubeen barri emoten jaku: 1704 urtean «Ciudad Real»-eko Dukea zan. 1745. urtean Jo de Turpin zeritxona. 1796. urtean ostera Rita Rekakoetxe. Gaur egun Goikolea-ko ugazaba dan Balero Barturenek, berak gogoratzen dauan moduan kontatzen dosku:

Antza denez baserria eta inguruko klurak «mayoral» barenak ziran, baina Jose m^a de la Pobes zeritxon batek eukazan hipotekaturik. Orduan Juan Barturen Gibelondo, bere aita zanak, erosi eutsozan, izatez Gazteizkoa zan gizon hareri.

Kapilla eta guzti daukan baserri hau, errota lez

erabili zan, hiru harriko errota baita transformadore moduan orain 90 urte eta badaroaz 40 urteren bueltan lotuta. Baina guzti honek histori polit bat dauka:

Kapitan bateri, itsasotik ebilela, itsasontzia hondoratu jakon urrezko kargamentu bat eroala. Pasadizo hori, urrearekin gelditzeko asmatutako kontu bat zala eta, kartzeleratua izan zan. Orduan «Oñate»-ren semea «El Buzo» deiturikoa, ur hondora sartu eta urrea berrezkuratuz, kapitaina askatzea lortu eban. Honek esker onez, diru mordo bat eman eutson buzoari ordainean, eta buzoak bere aldetik 90.000 ogerlekorekin argi saltua eraiki eban.

Baserriekin elkarrizketa

Armurua edo D. Anizetok zioenez Herri Buru baserrian, Floren Abioren izan dugu solasaldia. Bere 61 urteekin oraindik gogotsu ikusten dugu baserrian lan egiten.

Galdera: Oraintsu Bakion baserri asko egon da; orain zergaitik ez?

Erantzuna: Industrian bizimodua errezagoa delako, ze baserri ez da rentable. Bueno, rentable, bizitzeko moduan bai, baiña aberastu barik eta gogor eginda.


G.: Zergaitik etorri zinen zu baserrira?

E.: Ni albaneltzan ibilli nintzen baiña nenor geratu behar zuen baserrian eta neu geratu nintzen, bueno, gusteu be asko egiten jat.

G.: Geur be berdina egingo zenuke?

E.: Nik beti euki dot ganaduegaz zeozer eitzeko amesa eta "desde luego" damutute ez nau.

Dana dala atzetik ez dago iñor, ze gaztiek ez



Armurua edo, D. Anizetok zioenez Herri Buru baserria gaur

deure gure baserriko lanik. Hau jakin baneuen ez neuen egingo hainbeste gastu.

G.: Esnetara dedikatzea erabaki duzu, zergaitik? Bera da rentablena?

E.: Ba, igual bai, baiña lehen orain baiño hobeto, ze bajatu egin dauzkue prezioa eta gehiau egin gura doskue. Niri, neuri, beste batzuri baiño merkiau urtetan dost esnie, ze almagazetik gitxi gastetan dot, ze Bakio zenbat gure bedar dau. Siketiegaz egoten dire problemak, bestela ondo.

G.: Egiten dituzuen inbersioak, makinaria, ganadue etabar, merezi dute?

E.: Bai, inbertsiñoa egin behar da, ganadu selektoa behar da, ze ostantzien ez dekozu esne ona eta ez dautsue pagetan. Eta makinariak bierra asko erreztuten dau, ze 66 ganaduegez bier asko egin behar da eta egun biko bedarra momentu baten batzien dugu guk.

G.: Instituzioek laguntzen dute?

E.: Makinariak orain badeko laguntziñoa, nik erosi neunien ez. Ganaduek bai. Eta horretarako sarri bisitxetan gaitxue kontroladoreak, eta ganadu kantidadiek bere zer ikusia deko.

G.: Baserrian tekniko faltarik badago?


E.: Guk, geuk praktikiegaz ikasi dugu baiña zenbat eta gehiau jakin hobeto, preparau egin behar da eta teknikuak behar dire.

Kontuek be zihetz-zihetz eroan behar dire, behien kontrolak, fitzak...

G.: Beste gauzaren bat badeukazu esateko?

E.: Baserriek geugaz akabatzen direla, ze multinazionalak koixuko dere dana.

Bueno Floren, hurrengo batean jarreituko dugu. Eskerrikasko.



Matilde Lopetegi eta Juan Antonio Urarte baserriaren aurrekan

Baserriekin elkarrizketa

Uriarte baserrian Juan Antonio Uriarte eta Matilde Lopategirekin euki genuen elkarrizketa. Jo ta ke ari dira lanean senar-emazte hauek.

Galdera: Zer dela eta egiten duzue lan baserrian?

Erantzuna: Herentziko gauza bat izan da. Hasieran ez hain gustora baina nenor geratu behar zenez, hemen gagoz.

G.: Baserria rentablea da?

E.: Gaur egun rentablea ezer ez. Lan asko eginta zeozer ataraten da. Zortzi ordu lan egiterik eta holakorik ezer bez.

G.: Rentablea izateko gauza batera edo askotara?

E.: Gauza bat baino gehiau eroan behar dira: ganadue, ortuaria etabar eta ganera kondizio bategaz, terreno asko eta etxe ondoan.

G.: Ortuariari buruz zer?

E.: Orain arte nahiko ondo ibilli gara ortuariegaz, orain gauza batzuk kanpotik ekarten hasi dira eta geuk ikusi baher dogu zer datorren baste gauza batzuk ipintzeko.

Bestela ortuaria ganadue baino apur bat libreagoa da, ze ganaduegaz lotute zauz eta honela egun batzuk atera leiz libre. Bakio aproposa da ortuarireko gainera.

G.: Zelan eta non saltzen dozue?

E.: Merkabilbaun ze plazetara eta etxeetara ezteu merezi.



Ortuariak Merkabilbaon saltzen dituzte.

G.: Etorkizun gehiago zein arlotan ikusten dozue?

E.: Gure ustez ortuarian oraingo. Fruitak ezteu balio ze kanpoko "a tirar" dau Merkabilbaun.

G.: Baserritarrek, elkar -lan eginda ez lirateke hobeto joango?

E.: Esperientziak negatiboak dira (koperatibak trastera joan dira) eta orain arte behintzat baserritarrak bakarka lan egitekoak dira, ez gara lar fiatzen besteekaz.

G.: Subentzioren bat jasotzen duzue?

E.: Ortuariak ez deko subentziorik, ganaduek bai.

G.: Alaba bi dituzue, heuren etorkizuna baserrian ikusten dozue?

E.: Guk, heurek gura badeure, ondo ikusten dogu baina estudioak eginda eta ondo preparata, guk ez detzegue esango ezetzik.


G.: Kaletarrak konturatzen dira zuen bizitza gogorragaz?

E.: Kultura apur bat deukienak bai, baina edonor ez.

G.: Mensajerik kaleta-rrentzat?

E.: Bertoko produktoak, autoktonoak erosteko: okela, esnea eta ortuaria.

Beno, badakigu aldizkaritxo honetan zuen problematika guztia ezin dugula sartu, baina bueltatuko gara hurrengo batean. Jarraitu gogor euskeraz.



Esnearen prezioa jeitsi dute

XXVIII. SAN JOSE IDIPROBA SARIA

San Josietan 20 Buzterri Bakion

Aurten XXVIII San Jose Idiproba Sari Nagusia jokatu da Bakion Martiaren 18, 19, 20, 21 eta 22an.

18AN, GAUEKO 9ETAN:

Arientza anaiak
Burgo
Simon

Altzaburren anaiak

19AN, ARRATSALDEKO 4,30ETAN ETA GAUEKO 10ETAN:

Belarreta
Lopategi anaiak
Tio-Motxo
Altzubarren
Iñaki Lopategi
Intzilarte

20AN GAUEKO 9ETAN


Nardiz
Eguzkizaga
Koldo Fullaondo

21EAN, ARRATSALDEKO 6ETAN

Egurbide
Arientza
Lopene

22AN GAUEKO 9ETAN

Barriola
Illarreta
Frantxillaberri
Sodad Artadialde



TXAKOLINA

Igaz txakolin gehiago egin zan baina aurreko urtean baino kalidade gitxiakoa

1992an, Bakion 34.900 litro txakoli egin ziran txakoligileek eurek emondako azalpenen arabera. Honeez gain, baserri batetako usta Gatikara joan zan.

Kantidadei dagokionez, gehien izan ebanak 8.000 litro izan zituan. Ondoren 4-5 mileko hiru agertzen dira, 2-3ko beste hiru eta mile inguruko beste hiru.

Gainetikoak kantidade txikiagoak izan zituen, 300-500 ingurukoak.

Guztira 20 baserritan hartu zen txakolina Bakion 92. urtean. Kantidadeari dagokionez aurreko urtean baino gehiago egin zan baina kalitateari dagokionez zerbait eskasagoa.

Edozein modutan kantidadez eta teknikaz, batzuk maila duin bat daberen, gehienak badabe oraindik zer egin eta zer hobetu, gaur egun merkatuan nagusi diren Getari eta Zarautzen parean iristeko



Ainara Madariaga

Ihauteriak

Lehenik eta behin, egunero bezala eskolan batu ginen ordu bi t'erdietan. Mozorro asko zeuden. Adibidez, ni eta nire klaseko mutilak neskaz joan ginen: minifalda, niki, peluka eta ditiekin.

Geroago eskolatik irten eta Julianeraino joan ginen gure danborrarekin giroa alaitzen.

Handik frontoiraino eta frontoitik eskolara bueltatu ginen. Hemen eskolan, oktogonoan txokolatea hartu genuen eta klasera etorri ginen tanborrak uztera.

Autobusa egon zen gero nahi zutenak etxera joateko.



Eskolako ikasle guztiak mozorrotu ginen

Ah! zelako giro polita egon zen!

Kanpoko jendea ere gurekin etortzera animatu zen.

Ea hurrengo ihauteriak nolakoak diren.

Bakioko Eskolako ikasle batek

Eritzia Eskola publikoa bai, baina euskalduna

Otsailaren 19an Euskadiko Autonomi Elkarteak Parlamentuak Euskal Eskola Publikoa definitiko duen legea aprobatzeri ekin zion.

Esan beharra dago lege hori ez dela aprobatu parlamentari guztien adostasunarekin, Herri Batasunak, Eusko Alkartasunak eta Euskal Ezkerrak ez baitute

ontzat ematen eta are gutxiago gizartean murgiltzen diren hainbat talde eta sindikatok. Beraz, lege hori ez da gogokoa ez ikastolentzat, ez eta Eskola Publikoan lanean ari diren guraso, irakasle eta ikasleentzat.

Lege honekin Euskalerriko historian ez dugu aurreratuko, lege honek euskera eta euskal kulturaren jarreipen sendoa ez baitu ziurtatzen. Noiz arte jarreituko dugu PSOE eta Hezkuntzako morroi den buesa jaunaren eskrupulo gabeko gure herriaren aurkako lege eta aginduak betetzen?

Ez al gara gai euskaldunok, eta gure aberria benetan maite dugunok, gure etorkizuna azpimarratzeko eta euskara indartzeko?



LABURRAK

➔ Hiru urtetan egon den kirol moni-toreari kontratua amaitu jako. Udaletxeak konkurso bat zabaldu dau berria aukeratzeko. Bitartean monitor barik gazoz.

➔ Itziar Txobernekoa gartzelaratu dute. Bakiotar honek 23 urte daramaz herritik kanpo. Baionan bizi da, seme alaba bbi ditu eta bere lantokian lanean ari zela, frantzez poliziek detenitu eta Pariseko Gartzel batetara eraman dute.

➔ San Josietarako ekintzak: 18 eta 19 24 Pelota orduak. 18tik 22 ra XXVIII San Jose Idipropa Sari Nagusia. 20an, gaueko 8,15etan Gaizka San Pedroren gorazarrezko ekintza parrokiari. Jon Lopategi eta Jon Enbeita bertsolariak eta ostean Biotz Alai abesbatza.

➔ Korrika egunean apirilaren 3an, Dantza taldeak Euskara bultzatzeko prestatu duen antzerkitxoa eskeiniko da: «HITZAK LAPURTZEN ZITUANA». Zai egon.

GAISKA LONGARAI

Futbolari lez etorkizuna izan leiken lehen kimua

Gaur egun Bakiok lau talde ditu; primerakoa eta bere gerizpean sortu diran beste hiru talde: kadeteak, infantilak eta alebinak. Guztira 43 gaztetxu dira etorkizunerako oinarria diran beheragoko hiru talde honeetan. Astean egun bitan ditue entrenamenduak eta gainera partiduak. Oraindik laugarren urtea betetzera doan elkarte honek bere betekizuna egiteaz gain, bere kirol arloko lehen kimua emotear izan leiteke: Gaiska Longarai atezaina. Kadetea da eta bere etxurak eta gelditzeko eragaitik etorkizun ona izan leike orain arteko bidetik jarraitzen badau. Oraintsu gure artean izan ditugun

Hungariako Altos Hornos taldeko futbolariak ere laster baten konturatu ziran bere



Gaiska Longarai atezaina da

apartekotasunaz, zaindu beharreko mutilla zala esan ebelarik. Baina presidentearentzako pozgarriena dagoeneko lau urte daroetan

elebinak egiten daben jokoa da. Beretzako jokalaria honeengan ikusten da batez ere alkarteak dauan funtzioa.

Euskerea Aurrera Guztion Artean

Euskerea aurrera atarateko beharrezkoa herrian diran talde guztiak hori euren zeregintzat hartzea. Kontuan hartuz, umeak guztia hartzen dabela handiagokandik eta hizkuntzagaz ere bardin egiten dabela. Beraz alperrikoa litzatekela euren euskeraz egitea eskatzea, nagusiagoak euren artean erderaz ekiten deuten bitartean edo irakaskintza edo beste gai latzenetan euskerea erabiltea eta eurentzako bagikoago litzateke zenetan erdere. Bakioko Euskera Batzordeak ordu horreetan ume eta gaztetxuen inguruan izaten diranengana jotea erabagi dau gai hau aztertzeke eta ahal dan neurrian eurenkin batera eta alkarrerri lagunduz egitarautxo bat egiteko bakoitzarentzako. Era honetan futbola, pelotea, monitora, eta abarrekin izatekotan da, ume eta gaztetxuentzako ekintzak euskeraz egin dagiezan beti eta guztiok ere ahalegina egin daigun beti euskeraz egiteko eta bakarrik ezinbestean, erdere. Bakarrik kasu honetan izango gintzatekez euskeraz egitera berez deitzen dauan erreferentzia.

Bakio Kirol Taldea mailaz igoteko ustetan

Bakio kirol taldeak, bere laugarren urte honetan, preferentera igotea dau helburu. Urtea horretarako planifikatu dabe eta orain bigarren bueltan igarri egin beharko litzateke. Momentuz puntu bi inguruan dabil igoteko toki hortatik baina hurrean ditu beste talde gogor bi ere eta izerdia emon beharra ta gogor saiatu beharra izango dabe helburu hori lortzeko. Jose Domingo Renteria presidentearen ustez naiko ondo ditue gauzak azkenean bigarren amaitzeko eta lesioak eta errespetatzen baditue datorren urtean preferenten izango dira. Lehenengo bueltan 20 jokalaritik 12-13gaz ibili dira eta orain bigarrenez, taldea ia osorik dabe. Presidentearen ustez igoteak merezi dau.

J.D.Renteria.: Duda barik, bai. Guk gaur egun daukagun taldea bera, ere, hobeto ibiliko litzateke preferenten primeran baino, jokalaria teknikoak direlako.

Ikuskizun hobe izango geunke. Ill mailan diran Mungia eta Bemioentzako ere interesgarriagoa izango litzateke jokalaria izteko eta zalantza barik berton sortzen joan leitekezan jokalaria gazteentzako ere egokiagoa izango litzateke maila hori.

Bakio Kirol Taldeak sei milloi inguruko aurrekontua dauka 92-93 honetako bere talde guztietarako eta mailaz igote honek ez leuke eragin handiegirik izango hurrengo urteko aurrekontuan.

J.D.Renteria.: Ez litzateke asko gehiago izango. Joan-etorriak bardinak izango litzatekez edo hobeak eta 400 bazkidegazeta orain arteko laguntzak eta zerbait gehitxua gogaz leitekena

Prensak ere beste arreta bat eskeintzen deutse preferenteko taldei eta laguntzaile edo sponsorren aldetik ere laguntza gehiago izango geunke.

Bakioko Idaz Lehiaketa

Pasa dan idaz lehiaketa 27 lanek hartu zuten parte. ZORIONAK partaide guztientzat Sarituen izenak eta lanak emango dizkizuegu oraingoan, baita saritu baten idazlana osoa.

Idazlerik gazteena: **Etzozi Elgezabal, «Bakioren paisaia».**

1º taldekoa (9 urte): **Olatz Longarai «Bakio Udan».**

2º taldekoa (11 urte): **Lide Madariaga «Olentzero**

Bakion dago»

3º taldekoa (14 urte): **Irama Santos Abio «Bakioaren Historia»**

4º taldekoa (18 urtetik gora): **Oskai Bilbao «Gure Herria», Mari Tere Iturriaga «Bakiori buruz», Pilar Garces de los Fayos «Hondartzako Ibilaldia»**

Olentzero Bakion dago

Herri txiki batetan, "Bakion" Gabon eguna zen, gau horretan Olentzero joango zen etxe guztietara, opariak, gozokiak edo ta ikatza ekartzera...

- Eta ikatza Zergaitik?

- Ene! ez al dakizue?

- Olentzerok ikatza ekartzen die maltzurak eta alperrak izan diren umeei.

Bakioko frontoian egon ondoren ume guztiak bere etxeetara joan ziren ohean sartzeko lehen bait lehen.

Biharamunean ume guztiak esnatu zirenean zubaitz ingurura urreratu...

Baina Olentzero ez zen etorri! egongelan ez bait zegoen oparirik.

- Gutaz abaztu ote da? edo ez gaitu maite? - Halako kexak entzuten ziren Bakio guztitik.

Patxik Mimen-Ondon bizi zen ume batek zera galdetu zion bere aitari:

- Aita, non bizi da Olentzero?

- Mendian seme, mendiko txabola batetan.

- Bai, bai hori badakit, baina zein menditan?

- Aurrekoan, hor Jatan uste dut bizi dala, zibur ez nago baina.

- Ondo da, eskerrik asko aitaxo.

Patxik aitaren beroki lodikotea, amaren eskularruak eta beraren txanoa jarri zituen.

-Agur aita!

- Baina nora zoaz!

PUMM! (atearen zarata).

Patxi mendi gora ziboan Jatarantz. Urrunean txabola bat ikusi zuen, eta, lasterka, hurbildu zen. Bere etxean balego bezala atea jo gabe sartu zen Olentzeroren txabolara. Bapatean berarekin topo egin zuen. Olentzero

egongelan zegoen pentsakor. Burua bueltatu eta Patxi ikusi zuen ate ondoan.

- Zer egiten duzu zuk hemen? - Galdetu zion Olentzerok.

- Zure bila etorri naiz, herri guztia egon bait gara zu itxaroten, zutaz eta opari politez penisatzen, baina ez zara agertu.

- Bai horrek arrazoia bat duesan zuen Olentzerok- ez naiz ondo aurkitzen eta gainera astoak alde egin dit, ez dakit nola, baina alde egin dit.

- Ba hori ez da arazo larri- esan zuen Patxik- zure egoera hori alda daiteke, pastila bat hartuz pasatuko zaizu, eta gainera ni arduratuko naiz astoa bilatzeaz.

- Ondo ba, mila esker.

- Beno, dana dala nik nere opari zerrenda ekarri dizut. Astoa bilatzen dudan bitartean irakur dezakezu.

Denbora gutxi barru Patxi itzuli zen, astoa sokatik tiraka zekarrela.

- Ene bada, eskerrik asko, askoz ere hobeto aurkitzen naiz eta bueltan dut nire maitea. Gauza bat proposatzen dizutesan zuen Olentzerok- nirekin etorriko zara oparien banaketa egitera. Ondo iruditzen ai zaizu?

- Guau! nola ez zait ba ondo irudituko! Pozik

lagunduko zaitut.

- Ondo da, irten gaitezen bada.

Biok irten ziren Bakiorantz pozikan. Etxe bakoitzari dagoki zitzaizkiona jarri eta ondoren Olentzero, Patxiren etxera afaltzera gonbidatu zuten bere gurasoak.

- Tori Patxi, hauek zeure opariak dira.

- Eskerrik asko, ene! zenbat gauza!

Gabon egunik zoriontsuena izan zen.

- Agur Olentzero...

- Beste baterarte, bai, beste baterarte...

Eta bakoitza bere etxera itzuliz amaitzen da istorio hau.

Lide Madariaga

OLENTERO



Txistekak

Teloia igotzen da eta hamar andre argal daude.

Teloia bajatzen da, eta hamar andra horiek haurrak egiteko daude. Zelan deitzen da txistea?

Bilil Azkarra

Zein da ahate baten kolmoa?

Anka okerra eukitzea

Zein da aulki beroena?

Aulki Elektrikoa

Zein da bonbarik txikiena?


Bonbilla

Bi globo doaz basamortutik eta esaten dio bata besteari:

- Kontuz kaktusarekin

Jeroglifikoa

Zein da pelikularen izenburua?



ERANTZUNA

NABOLEON BOINAPARTE

Bertsoa saio bat Urkitza ikastetxean

Euskera Batzordea kezkatuta dago Bakioko bertso-zaletasun txikiagaz.

Eskolako ikasleentzat baita kanpoko ikastetxeetara doazenentzat saio bat antolatu dugu Jon Lopategi bertsolariaren eskutik. Bertso-eskoletan esperientzia ugari duen bertsolari ospetxu honek jolas moduan erakutsiko digu bertso munduan murgiltzen.

Saioa martxoaren astelehen batetan arratsaldeko hiru t'erdietan izango da Urkitza Ikastetxean. Zai egon.

*Aitorren bizkuntz zarra
nabi degu zabaldu
munduaren aurrean
gizonki zabaldu
baldin gure zainetan
odolik badegu
euskaldunok euskeraz
bitz egin behar degu*